

Herritarrak

2013ko ekaina

INFORMATZEN

Udalgintza informazioa 2011-2015

8.alea

www.berastegi.com



HIRIGINTZA

1. Udaletxearen iparraldeko fatxadaren konponketa-lanak: Leihoetatik filtratutako urak eginiko kalteak konpontzeko 22.000 euroko laguntza agindu zuen Foru Aldundiak. Gipuzkoan barrena izan diren luiziak tarteko, ordea, diru horri beste erabilpen bat eman behar izan zaio. Hala ere, udaletxeko obran erabiltzea espero eta azkenean erabili ez zen dirua bueltatu behar digu oraindik Etorlurrek, eta diru hori erabili ahal izango da konponketa lan horietarako. Bestalde, esan kulturatik 9.000 euroko diru-laguntza bat ere jaso dugula kultur ondarea zaindu edo berreskuratzeko, eta hori ere ondo dator lan horietarako.

2. Irisgarritasun-plana: Irisgarritasun plan bat egin dago lehendik (2004), espaloi, pasabide, zebrabide eta antzekoak zehazten dituena. Plan hori gaurkotzea eta 2014rako eguneratua izatea da asmoa. Plana jendaurrean aurkeztuko da, eta herritarrek herrian antzematen dituzten puntu beltzen berri emateko aukera izango dute. Hartara, denon artean proiektu osatuago bat egin ahal izango dugu. Badira diru-laguntzak honelako proiektuak gauzatzeko, eta horietako bat aprobetxatuko dugu berau egiteko.

3. Etxe-izen, zenbaki eta kale-izenak bateratzeko plana: Herria den bezain zabala izanda eta "hirigune sakabanatu"-en arazoa konpontzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako katastroak hartu eta plano berria osatzen ari da udaleko aparejadorea. Esan behar da kale-izenak adosteko batzorde ireki bat antolatzeke asmoa dagoela.

UDAL FUNTZIONAMENDUA

1. Kontratazio berriak: Alde batetik, artxibozaina kontratatu da 4 hilabeterako, artxibo administratiboa txukundu eta antolatzeko. Joseba Bergaretxe ari da lan horretan. Eta bestetik, herri-langilea kontratatu da 2 hilabeterako, herri-bideen eta hiri-altzarien mantenuan, baso-garbiketan eta festetako lanetan laguntzeko, eta Jon Iparragirre hartu da lan horietarako. Lehen kasuan, hautagaien curriculumak hartu dira kontuan aukera egiteko orduan; bigarren kasuan, aldiz, baldintza batzuk betetzen zirela ziurtatu ondoren, zozketa bidez egin da langilearen hautaketa.

2. Arkitektoa eta aparejadorea: Hemendik aurrera hamabostean behin izango dira udaletxean jende aurrean. Asteazkenetan, orain arte bezala.

3. Udal bulegoen jendaurreko ordutegia: Aurrerantzean udal bulegoak goizeko 8etatik arratsaldeko 3etara izango dira irekita herritarrentzat, behar duten informazioa eskatzeko edota tramiteak egiteko.

4. Osasun-zentroa lekuz aldatzeko proiektua: Mediku-etxetik udaletxe eraberrituko sotora ekarriko da. Proiektua martxan du udaleko arkitektoak, eta lanen gastua %100ean Osakidetzak ordainduko duelakoan gaude. Berehala izango dugu bilera beraiekin, eta lanak 2014an edo 2015ean hasteko moduan izatea nahiko genuke.

HONDAKINEN KUDEAKETA

Gaurko egoera eta datorrena

Jakina da Tolosaldean hondakinen bilketa-zerbitzua biztanleko kobratzen diela Mankomunitateak udalerriari, eta ondoren udal bakoitzak erabakitzen duela zer-nola kobratu herritarrei. Orendaingo Udalak, esate baterako, zerbitzuaren kostua oso-osorik kobratzen die herritarrei, eta familia bakoitzak 120 euro inguru ordaintzen du urtean zabor-bilketa zerbitzuaren truke. Berastegiko Udalak, berriz, gaur egun 64 euro kobratzen die herritarrei urtean, eta kostuaren gainerakoa Udalak berak ordaintzen du bere aurrezkietatik. Zabor-bilketa zerbitzua, beraz, defizitarioa da eta defizitario izaten jarraitzen du Berastegiko Udalarentzat, lehen ur-zerbitzua zen bezala.

2014an Tolosaldeko Mankomunitateak aldatu egingo du hondakinen bilketa-zerbitzuaren gaineko fiskalitatea, eta biztanleko ez, altxaldiko kobratzen hasiko da, sortze bidezko eta kobratze-sistema justuago batera bidean. Hortaz, asko sortzen dutenek (industriaguneak, merkataritza jarduerako guneak eta abar dituzten udalerriek) besteek baino gehiago ordaindu beharko dute. Berastegi bezalako udalerrientzat aldaketa hori onerako izango da, zalantzarik gabe, jasotzen ez zuten zerbitzu baten gastua hartzen baitzuten beren gain.

Beraz, altxaldi kopurua eta altxaldien maiztasuna murriztuz gero, bilketa-zerbitzuagatikoa gastua ere murriztu ahal izango du Udalak, nahiz defizitario izaten jarraitu. Zero Zabor filosofiarekin bat, hondakin organikoa herrian bertan kudeatuta, helburu hori lortzea errazagoa izango da, zalantzarik gabe.

Udalaren planteamendua

SPORAK etxez etxe jasotako datuak aztertu ondoren, eta auzoz auzo eginiko bilerak kontuan hartuta, hauxe da Udalak hondakinen kudeaketaren inguruan diseinatu duen planteamendu berriak jasotzen duena:

1) GEHIENGO ZABALA KONPOSTA EGITEAREN ALDE

Herritarren %79,55ek hondakin organikoa herrian bertan kudeatzearen alde egin du, martxan diren autokonpostagailuen bidez edo aurki egokituko den auzokonpostagailuaren bidez. Horrek esan nahi du Berasegin 10etik 8k konposta egiteari baiezkoa eman diola, eta hori horrela, Udalak herritar horiei guztiei eskerrak eman nahi dizkie planteamenduarekin bat egiteagatik. Gainerako %20,45ekin kontaktuan jartzeko bidean da Udala.

2) AUZOKONPOSTAGAILUA PLAZAN BERTAN

Autokonposta egin ezin duten eta auzokonposta egin behar duten herritarrentzako auzokonpostagailua plazan bertan jarriko du Udalak. Horretarako, udaletxearen iparraldeko fatxadaren aurreko eremua egokituko da, eta orain arteko bilguneaz gain, 120 lagunentzako



auzokonpostagailua (Etxarri Aranatzeko ezarri dituztenak bezalakoak) eta berdegune bat ere egongo dira bertan. Herritarrek beraiek eraman beharko dute hondakin organikoa, eta auzokonpostagailuaren mantenua eta martxa herri-langileen ardura izango da. Bestalde, Elduan auzokonpostagailu txikiago bat jartzea erabaki da.

3) BILGUNE BERRIAK HONDAKINAK SAILKATZEKO

Orain arte papera, plastikoa eta beira biltzeko hiru bilketa-gune izan ditugu herrian (plazan, eskola atarian eta eliz atarian), eta beste bat Eldua auzoan. Auzoz auzo egindako bileretan, hala ere, herrian zehar birziklagune berri gehiago jartzea proposatu zen, eta halaxe egitea erabaki du Udalak. Erabaki bezain laster jakinaraziko da zenbat bilgune berri eta non jarriko diren. Honekin gure asmoa birziklatzea ahalik eta erosoena eta errazena izatea da.



4) ERREFUSA BILTZEKO GILTZAPEKO ONTZI TXIKIAK

Birziklatze mailarik onenak lortu ahal izateko, neurri txiki eta ertaineko errefusa edo birzikla ezin litekeen hondakina modu kontrolatuan biltzea erabaki du Udalak. Horretarako, giltzapeko ontzi gris txikiak jarriko dira (Elduainen jarri dituztenen antzekoak), bilketa-gune nagusietan eta 10-12 etxeka edo bizitzaka banatuta. Auzotar bakoitzak, ontzi gris baterako sarrera izango du giltza bidez, eta ontzi horiek husteko ardura herri-langileek izango dute. Hartara, birziklatze maila neurtzeko modua izango du Udalak.

Neurri handiko errefusa biltzeko, berriz, bestela esanda, ontzi grisetan sartzen ez den errefusa biltzeko, eta bestelako hondakin birziklagarriak (bonbillak, cd eta dvd-ak, etxe-tresnak...) biltzeko, mediku-etxeko garajea egokituko da. Ordenantza baten bidez arautuko da ordutegia. Beraz, hasiera batean eliz atarian planteatzen zen garbigune txikia mediku etxeko garajeen jarriko da, ezer berririk eraiki behar izan gabe.

5) KALEKO ZABORRONTZIAK EGOKITUTA

Ontzi bakarrekoak kendu eta lau ontziko kale-zaborrontziak egokituko dira, papera, plastikoa, organikoa eta errefusa bereiztuta sailkatzeko. Lauko ontzi horiek plazan, futbol-zelaian, parkean eta eliz atarian izango ditugu momentuz erabilgarri.

6) ELKARTE, KOMERTZIO ETA ENPRESEKIN BILERAK

Basurde eta Urepele Elkarteekin egin zen bilera, eta dagoeneko planteamendu berrira egokitzen ari dira. Gaztainondo Elkartearekin eta komertzio eta enpresekin biltzea falta da. Ahalik eta azkarren egitea espero da.

INGURUMENA ETA EKONOMIA

Argiteria-faktura murrizteko asmoa: Ikerketa bat egingo da datorren urtean, kale-argiak eraginkorrago eta merkeago nola jar daitezkeen ikusteko. Hartara, alferrikako gastua saihestea eta argiteria-faktura murriztea da helburua.

KULTURA

1. Mintzalaguna proiektua: Euskaraz aritzeko elkargunea izango da, euskaldun zahar eta berrien topaleku. Momentuz 4 euskaldun berrik eta 2 euskaldun zaharrek agertu dute interesa, eta irailetik aurrera jarriko da martxan. Eguna eta ordutegia zehaztea falta da.



2. Mundumob birarekin bat: "Eman hartu nahi duzun mundua" lelopean, ekainaren 6an egin zen Berastegin Orendainen hasi eta Donostian bukatu zen Mundumob biraren emanaldia. Oso arrakastatsua izan zen, eta bertan ikusi genuen badela mundu hobea baten alde lan egiteko prest dagoen jende konprometitua.

3. 2013ko Salontzoak: Leiho, balkoi, lorategi eta baratze-lehiaketak martxan dira dagoeneko, eta herri-afarirako txartelak ere salgai daude udaletxean, Urepele eta Basurde Elkarteetan eta Zelai tabernan. Aurten, Zero Zabor mugimendurekin bat, plater eta baso berrerabilgarriak erosi dira herri-afarirako, baita aurreragoko bazkari eta afarietarako ere. Bestalde, aipatu behar da udaletxeko erabilera anitzeko gelan bi erakusketa izango ditugula aurten: bata, Gaztainondoko eskulanena; eta, bestea, Luis Erasoren egur-lanena.

MOTZEAN

1. Udalaren foroan jasotako bi eskaera:

a) Herri-lurren eta herri-bideen inbentarioa egitea eta ondare hori berreskuratzea. Ingurumen-teknikariarekin hitz egin da, eta Udalak bere lehentasunen artean du plana.

b) Baratze-sozialak: Udalak ez du herri-gunean baratzetarako erabili daitekeen herri-lurrik. Hala ere, lur-jabeak eta lur horiek alokatzeko interesa dutenak kontaktuan jartzeko prest da.

2. Erabilera anitzeko gela: Jakin udaletxearen beheko solairuan den erabilera anitzeko gela zabalik dela edozein ekitalditarako: hitzaldi, erakusketa, musika-edo antzerki-emanaldi, bilera... Baimena eskatzea nahikoa izango da.



3. Konponketa-lanak haurreskolan eta eskolan: Leiho ertzetako silikonak berritu eta teilatuko itoginak konpondu dira.

4. Autobus zerbitzua: Alde batetik, aipatu behar da autobus-zerbitzuaren kontzesio berria alegazioen epean dela, eta oraindik ez zaiola erabateko onarpena eman. Eta bestetik, esan Tolosatik ospitaleetara joateko autobus-zerbitzu berria martxan dela. Ordutegia udaletxeko arkupean eta udalaren web-gunean duzue.

ESKUALDEKO BERRIAK

1. Komunikabideen bat egitea: Tolosaldeko Komunikabideen Taldea (TKT) osatua da dagoeneko, Hitza, Galtzaundi, Txolarre irratia eta 28 kanalarekin, eta udazkenean martxan izango da atari digitala. Udalak lehen banan-banan laguntzen zituen diruz komunikabide hauek, baina hemendik aurrera laguntza bakarra emango zaio taldeari: urtean 3 euro biztanleko.

2. Tolosaldea Saretzen: Proiektu hau etorkizunean nolako Tolosaldea nahi dugun definitzeko sortu da. Bertan hainbat politiko, udal ordezkari eta teknikari ari gara mintegi batzuk egiten.

3. Tolosaldeko BTT zentroa: Mountain bike bizikleten inguruko zentro berria egingo da Tolosaldean 2014an, eta egin nahi den ibilbideetako bat Berastegitik pasatuko da, San Sebastian baselizatik eta Uli menditik barrena. Udalari helarazi zaion proposamenaren arabera, behin 1.500 euro ordainduta, ibilbide horrek herrigunea ere zeharkatuko du, eta herriarentzat bizigarri izango da. Udalak baiezkota eman dio proposamenari.

LEGEALDIAREN ERDIBIDEAN

Udalgintzako lehen bi urteak beteta, hasierako helburu eta egitekoak gainbegiratu, egindakoa berrikusi, herritarren ekarpenak jaso, eta helburu eta egiteko berriak zehazteko garaia da. Bildu Berastegiren 2011ko udal programari begiratuta, atalez atal ondorio hauek atera litezke:



1) GARDENTASUNA udal funtzionamenduan

Herritarren parte-hartzea sustatzeko eta herritarren artean informazioa zabaltzeko hainbat baliabide jarri dira martxan: hiruhileroko herri-batzarrak, aldian aldiko batzorde irekiak, Informatzen txostenak, webgunea, informazio-orriak etab. Udal taldearen balorazioa ona da baliabide horiekin lortutako emaitzen inguruan. Esan behar da, hala ere, ez dela batzorde irekietara jende askorik erakartzea lortu, baina ahaleginduko gara horretan.

Aurrera begira, bestalde, Udalak udal informazioa e-mailez jaso nahi duten herritarren helbide elektronikoen zerrenda osatzeko asmoa ere badu. Beraz, interesa duten guztiek beren helbide elektronikoa utz dezakete udal bulegoetan.

2) HIRIGINTZA

Hiria Antolatzeko Plan Orokorra onartu da behin betikoz, eta dagoeneko arau subsidiarioen jabe da Berastegiko herria. Udaletxearen eraberritzearen lehen fasea ere egina dago, eta jadanik martxan dira hainbat zerbitzu: udal bulegoak, posta-bulegoa, bake-epailea eta gizarte zerbitzuetako laguntzailea, besteak beste. Lehen fasea amaitzeko, lehendik gordeak dauzkagun altzariak eraberritu eta udaletxera ekartzea eta dekoratzea falta da.

Datozen bi urteetan, berriz, bigarren fasean edo bigarren solairuaren eraberritze-lanetan eta finantziazioan jarri nahi du Udalak arreta. Herriaren bestelako hirigintza-beharrei erantzuteko asmoa ere badu (espaloiak, zebrabideak, kale-argiak...).

3) ETXEBIZITZAK

Ategiko eremuaren plana eta bertan eraikitzeakoak diren etxebizitzaren proiektua ere martxan da dagoeneko. Hirigintza Jarduketa Programa (Programa de Actuación Urbanizadora) jaso berri du Udalak. Foru Aldundiaren onarpena jasotzea falta zaio orain. Ondo bidean, 2014an ekin ahal izango zaie eraikitze-lanei. 80-90 m²-ko etxebizitzak izango dira eta 180.000 euro inguruko prezioa izango dute. Interesa duen oro jar liteke harremanetan Udalarekin.

4) EKONOMIA

Bertakoa bertan kontsumitze aldera, martxan da salmenta zuzeneko Kontsumo Taldea. 4 hornitzaile eta 8 erabiltzaile ari dira asteroko saskiaren trukean. Bestalde, jakitun da Udala lehen sektoreak bultzada behar duenaz eta Berastegi lehen sektorean lanean aritzeko leku aproposa denaz. Horrela, beste herrietako ereduak ekarri nahi ditugu herrira, eta salmenta zuzenarekin egin bezala, proiektu berriak martxan jarri. Herriko nekazari eta abeltzainen proiektu berriei bultzada emateko ere lanean da Udaleko ingurumen teknikaria, beharrezko informazioa eta bitartekoak eskura jarritz.

Merkataritza arloan ere herrian falta diren zerbitzuak antzematen saiatuko gara, eta ahal dugun neurrian horien ezarpena bultzatzen. Turismoaren berpizte oreak ere sustatuko dugu, inguruko eta eskualdeko herriein elkarlana bilatuz.

5) INGURUMENA


Hondakinak

Zero Zabor mugimenduarekin bat egin eta ahalik eta hondakin gehien sailkatzeko eta birziklatzeko baliabideak nola jarri aztertzen aritu da Udala azken bi urteotan. Horretara bidean, hondakin organikoa herrian bertan kudeatzearen alde egin du apustu; eta, horretarako, auzoz auzoko bileretan herritarrak informatu eta beren ekarpenak jaso ondoren, etxez etxe autokonpostagailuak banatu eta ezarri dira.

Datozen bi urteetan, berriz, Berastegiko herria Zero Zabor herri izateko falta diren pausoak ematea da asmoa. Hurrengo atalean duzue zehaztuta eman asmo diren pausoen berri.

Ura

Ur-zerbitzuaren kudeaketak Udalarri eragiten zizkion galera ekonomikoak handiak zirela eta, uraren kudeaketa integrala Gipuzkoako Ur Kontsortzioari uztea erabaki zuen Udalak. Atzeratuta zeuden ordainketak eguneratu ondoren, Kontsortzioaren tasa, kontrol-sistema, hornidura eta inbertsio berrietara egokitzen joan da herria azken urtean. Berastegiko Erreka natur balore bezala berreskuratzea eta zaintzea ere datozen urteetako erronka du Udalak, nahiz eta orain arte URA agentziarekin izandako bilerak ez diren oso emankorrak izan.



6) EUSKARA, KULTURA, KIROLA ETA HEZKUNTZA

Herrian antolatutako kultur eta kirol ekitaldietan euskara, euskal kultura eta kultura herritarra oinarri izaten ahalegindu da Udala: Salontzotan nahiz Kultur Astean nahiz gainerako festa eta aldarrikapen egunetan (Euskararen Eguna, Inauteriak, San Isidro Eguna etab.). Herriko kultur eta kirol eragileekin biltzen eta laguntzak era adostuan banatzen ere saiatu da Udala.

Aurrera begira ere bide beretik jarraitzeko asmoa du Udalak. Bestalde, legealdi hasieran diru faltagatik bertan behera geratu bazen ere, datozen bi urteotan Berastegi UEMAKo edo Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kide izateko plana berrabiarazi nahi du Udalak.

7) GAZTERIA

Gazteek eta gazteek kudeatutako Urepele Elkarteak herriaren martxan duten egiteko garrantzitsuaz jabetuta, beren egitasmoak gauatzeko beharrezko dituzten baliabideak ahalbidetzen eta beste hainbat proiektu elkarlanean bideratzen ahalegindu da Udala azken bi urte hauetan; eta hemendik aurrera ere bide beretik jarraitzeko asmoa du.

8) HIRUGARREN ADINA

Adineko pertsonen egitasmoak eta partaidetza bultzatzen ere jarraitu nahi du Udalak, Gaztainondo Elkarteak diruz lagunduz. Etxez etxeko zerbitzua eta etxebizitza tutelatuen zerbitzua bermatzen eta indartzen segitzeko asmoa du Udalak. Ategin bertan, jangela soziala ere martxan da azken bi urte hauetan, eta interesatuek gizarte zerbitzuetan eska lezakete informazioa. Eguneko Zentroa, aldiz, itxi egin behar izan zen erabiltzaile faltagatik. Hala ere, erabiltze berriak erakartzen eta zerbitzua berriz ere martxan jartzen ahaleginduko da Udala.